

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Jesus Mari Arrieta Sagasti*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1947)*

Aurkibidea



## Biografia



1958an apaizetarako ikasketak hasi zituen Donostiako apaizgaitegian. 1965-1969 bitartean Euskal Herriko Historiaz ikastaroak eman zituen Gipuzkoako zenbait herritan. 1970ean apaiztua izan zen Azpeitian eta Eibarko Salbatore parrokiara bidalia. 1970 eta 1981 bitartean, parrokiako lanaz gainera, zenbait idazlan eta itzulpen-lan egin zituen, bertako ikastolaren sorreran parte hartu zuen, baita euskararen irakaskuntzan ere ikastetxeetan eta gau-eskoletan. Euskal Udalekuen sorkuntzan ere esku hartu zuen. 1981 eta 1990 bitartean Mutrikuko parrokiara bidalia. Zenbait idazlan egin zituen eta Elizen arteko Bibliaren itzulpen-lanean esku hartu zuen. 1990az geroz Donostiako Apaizgaitegi Nagusiko Errektore izan zen. Elkarrizketa garaian, Tolosako parrokoa zen.

Bere argitalpenen berri [idazleak.org](http://idazleak.org) gunean.

## Zintak

### DON-149

- **Proiektua:** Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data:** 2012-01-27
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

## Pasarteak

### 1. 1966, Ozaeta

- **Erref:** DON-149/002
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Apaizgaia zen Jesus Mari eta ordurako 8-10 egun pasatu ohi zituen udan akolitoekin-eta mendian. Mikel Urkola apaizak eman zion Ozaetako udalekuaren berri, eta 1966ko udan han ibili zen begirale gisa. Federiko Mendibil errenteriarra zen zuzendaria; Jokin Apalategi, Gotzon Mimentza, Jesus Mari bera eta besteren bat begirale. Bost begirale denera. Ihazinto F. Setien zen antolatzailea baina ez zen gelditzen. 60 bat mutiko txanda bakoitzean, neskari uste du ezetz. Hasier Etxeberria, Miren Dorronsoro eta haren anaia Mikel... Bi urtez egon ziren Ozaetan. Gero itxi egin zen.

**2. 1969, Saturran eta Deba**

- **Erref:** DON-149/003
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

68an (?) Ihazinto seminariora joan zitzaion, Juan Mari Jauregirekin batera, udalekuen garrantziaz konbentzitzera. Administratzaileari eskatu zioten Saturran erabili ahal izatea udalekutarako. Baimena lortu eta Manolo Berazak eta biek hartu zuten ardura. Urte hartan Saturranen mutiak egon ziren eta Debako ikastolan neskak. Harreman estua zegoen bi lekuen hartan.

**3. Begiraleak elkartzen eta trebatzen**

- **Erref:** DON-149/004
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Udalekuetako arduradunentzako ikastarotxo bat antolatu zuten Saturranen 1969ko udazkenean. Barriakoak ere egon ziren. Nola antolatu, materiala, programak, haurrekiko harremanak... Barriak hainbat urtez jarraitu zuen. Nekane Auzmendi, Jone Tapia, Mari Karmen Garmendia... Barrian egondakoen artean. Ozaetaren jarraipena izan nahi zuen Saturranek, Barrian hartzen ez zituztenak hartzea zen hasierako helburua.

**4. 1969, "Euskal Udalekuen" sorrera**

- **Erref:** DON-149/005
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

1969an ipini zioten Euskal Udalekuak izena. Bulego txiki bat ere jarri zuten bere etxean, Donostian, Jon Harrieta anaia zen idazkaria. Jende asko biltzen zitzaien.

**Transkripzioa**

-Eta bueno momentu hartan goatzen naiz, hiruroeita beatzia o holakon bat izango zan, bueno ba... pixka bat gure nortasuna o zea o izena're jarri behar izan geniola, ta bueno ba orduan esaten gendun ba, "Euskal Udalekuak", holaxe sortu zan izena, Euskal Udalekuak jartzekoa. Geure bueno bulegotxoaren in gendun goatzen naiz, nere etxean ein nun Donostiako etxean, eta anaia ba jarri gendula idazkari, eta beak jasotzen zittuzula izenak-eta, gero zabalkundea berriz ba momentu hartan ba nundik noa eskeiñi ta goatzen naiz ba soziedadetara, herrietara're biali genuela, listiña hartuta ta bueno, ahal gendun bezela, baiño Saturraranen, bai hiruroeita zortzia izango zan aurrena, bai, hiruroeita zortzian ta beatzian, ni han eon nitzan urtetan ba, asko biltzen zan haurra eh, asko, ehundik gora igual! Eta klaro, hola sortzeko, ezaguna etabar ba, harritzekoa zan baiño, biltzen zitzaigun jendea!

**5. 1970, Beire. Nafarroari begira**

- **Erref:** DON-149/006
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Saturraranen zenbait arazo izan zituzten euria zela eta. Gainera udan jende asko joaten zen hondartzara, eta zenbait gorabehera sortzen zen. Orduan Nafarroara begira jarri ziren. Zabaleta kalean biltzen ziren Maritxu Barriola, Joanito Goia, Eztala?... Bilera batean aipatu zen Korazonistek bazutela Beiren etxe bat. Horrela, gauza batzuk Saturraranen utziz eta beste batzuk eramanez, 1970ean hasi zen Beire. 1972a izango zen Saturrarango azken urtea.

**6. 1973, Abaigar eta Antzin**

- **Erref:** DON-149/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:12:33. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Abaigarren etxea erosi eta konpondu zuten. 1973a izan zen lehen urtea. Urte berean hasi ziren Antzinen, etxea alokatuta.

**Transkripzioa**

-Eta, ba Manuel Berasterrek esaten zian ba: "Hemen ez gaude ondo ta beste zerbait bilatu behar diagu ta...". Han-hemenka billa, oain ez dakit /

eztakit/ esaten nola baiño garai hartan kilometro asko iten gendun billa, ba azaldu zan etxe bat Abaigarren, ta azkenean ba han ta hemen eskean ibilli ta gero, erosi genuen Beireko, o Abaigarko etxe hura, konpondu ere bai, eta Abaigar ba, ez dakit /eztakit/ hola ziur esaten baiño, 72an o 73an hasiko zan lehenbiziko aldiz, hortxe izango zan 72-73. Ta aldi berean, besten batzuk aurkitu zuten, alokairuan hartzeko, Antziñen etxe bat, maistraren etxea o emen zan. Ba bueno izan gendun gure ezatabaida ba baietz, ezetz, izango ote genuen denei erantzuteko kabia, Antzin hartu ezkeo ya hirugarren etxea zan, Abaigar ta Antzin, ta batzuk zalantzan giñan ba bueno, erantzuteko moduan izango giñan, beste batzuk baietz, azkenean Antzingoa're ba 72-73an ez bazan hurrengo urtean hasiko zan... -DVDan agertzen da...?

-Urte berean hasi zen, ezta? Bai, Abaigar eta Antzin, bai, urte beretsuan izango zian. Urte berezia zan hura, ba "estado de excepción" haietako (...) zeon tartean eta, bai nahiko gorabeherak izate(n) genittun hortako, baiño hala're...

-73 ingurua, ezta?

-Holakon bat, 73a uste det zala, 73a.

## 7. Elizaren babesean sortutako Euskal Udalekuak

- **Erref:** DON-149/008
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

<p>Ikastolen Federazioak jakinarazi zien beren udalekuak ikastolako umeentzat zirela, eta talde berriaren planteamendua desberdina zenez, ez zituztela honen udalekuak babesten. Baziren errezelotxoak, ezkertiarak zirela eta horrelakoak. Baina Euskal Udalekuak elizaren babesean sortu ziren; Manolo Beraza eta biak Beiretik joan ziren lehen meza ematera, eta leku berera itzuli ziren gero.</p>

### Transkripzioa

-Ta bueno orduako ya ba, Ikastolen Federazioa nik uste 70ean o 69an, esana zigula ba beak bazutela beren udalekua, bazutela beren planteamentua, beren ikasle (...) eta karo guk ikastola ya gainditu zutenentzat ikastolan ibiltzen ziententzat baldin bagenun udalekua ba, ezin zutela babestu. Eta guk ikusiko zer egin eta ba bueno ba erabaki genuen jarraitzeko, jarraitzea, eta halaxe jarraitu genun, baiña momentu hartan hiru etxetan.

-Baiña ikastolen babesetik aparte?

-Aparte. Bai bai.

-Sasoi hartan, Ikastolen Elkarte edo, zela(n) zegoen edo, ikusi eziñen batzuk zeuden?

-Gurekiko?

-Bai, bueno...

-Ikusi eziña ez dakit baiño holako susmo batzuk edo bazian bai, gu ze ote giñan eta ezkerreko jendea giñala ta, batzuen ustetan ba igual oso fidagarriak ez giñala alderdi hortatik eta... Kao baiño gure sorrera azken batean parrokiaren babesean izan zan, behar zien baimenak, bai udalekuak antolatzeke ta bai zeatzeko, dana parrokiak babesten zittuzten. Baiño

bueno, hala ere ba, eta pentsa ba, gu, ni momentu hartan, apaizgai izan, apaiz egitera, Beiretik etorri nintzan, eta Beirera itzuli hurrengo egunean, eta Manuel berdin, Manuel ere bai, baiño hala're ba bueno ez zuten konfiantza haundiegirik eta...

## 8. Barriatik Agurainera

- **Erref:** DON-149/009
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Federazioko udalekuak Barriatik Aguraingo Korazonisten komentura joan zirela uste du. Iñaki Beristain frantziskotarra han ibili zen, esaterako. Urte batzuk egon ziren Agurainen. Beste leku batzuetan ere bai, Otsagabian? San Asension?

## 9. 1980, Beiretik Goñira

- **Erref:** DON-149/010
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Beiren 79ra arte egon ziren. Jabeek saldu egin behar zuten etxea eta eurek ez zuten dirurik erosteko. Han bertan izan zuten Goñira etxearen berri. Ikusi eta asko gustatu zitzairen. Auzolanean konpondu zuten etxea. 1980an hasi zuten udalekua eta hor jarraitzen du. Esperientzia ona Goñira.

### Transkripzioa

-Ta Beiren eon giñan ba 79 arte. 79an ba esan ziuten ba etxe hura salgai jartze(n) zutela, ezin zutela han jarraitu, ya hustua zuten ordurako, azkeneko bizpahiru urtetan, hustua zuten etxea, ez zeon komunidaderik. Eta orduan ba, ibili giñan, erosiko ote de, ez ote de, ze ingo ote deu honekin, baiño guk diru askoik ez genuen, doi-doi ba familik emate(n) zutena ta gero ba bueno borondate oneko jendea ba garai hartan asko launtze(n) ziguten ba adibidez Eibarren Juan San Martinek eta, holako batzuek ba, jo dezagun hara ta jo dezagun harengana ta beste harengana ta, (...) batek zeoze eman ta besteak zeoze eman ta euste(n) genion, nola hala baiño klaro, ba hogeita hamar millioiko zea itteko ez, erosketak eiteko ez, inbersioa ezin gendun egin, uste det holakon bat zeoze zala, hitz egin genduen baiño ez, ez gendun modurik ikusten eta orduan hain zuzen, azkeneko urtetan noa jo ez genduela hango fraile baten etxeko batzuk esan ziuten: "Ba guk badeu famili artean Goñin, ba hola baserri haundi bat, etxe haundi bat dute ta bueno salgai dao, ez da iñor bizi ta...". Bueno holaxen, goatze(n) naiz ni, nola joan nitzan, 79an izango zan udaberrian, ba etxe hori ikustera, ta benetan ba bueno ba, sekulako zea zan, baserri

haundi bat, hutsa, eta bueno eakutsi nien ekipokoei, ba bueno beste erremedioik ez deu. Ekintza honekin jarraitzekotan eta ikuste(n) genuen interesgarria. "Ez deu beste erremediorik, etxe hori hartu ingo deu". Eta ba haren aldean Beireko haren aldean ba askoz ere gutxigo kosta zitzaigun, hala ere beti kosta zan, bai, batez ere etxea erostea ta konpontzea, karo, antolatu in behar zan, udaleku bihurtzeko. Eta bueno, langilleak ekarri behar izan genittun noski, teillatu ta, hormak botatze ta eraikitze ta, sukalde eta bueno, danak antolatzeko baiño, ekipo ona're bildu zan, auzolanean lan egiteko, astero-astero asteburutan joan eta, bueno danok ein deuna, ezta? Antolatu ta garbitu ta prestatu ta... Geo Beiretik gauzak eraman ta, bueno holaxe 80an, ba... erabat bukatu gabe baiño, hasi ahal izan genuen udalekua han, Goñin. Alde haudia zeon ba Beire oso toki, alde batetik ba zelaia da, Erribera, hau berriz ya menditsua, basoa... eta hura oso beroa, Goñi berriz, bai, badittu egun beroak baiña gehienetan frexkoak... baiño bueno, ingurua ezberdina da, orduan horrek beak behartu gintuen ba, nolabait gure egitarauak-eta, berriz ere ba, egokitsera, han zen beharretarako ta, bueno. Nik uste beti izan dala, Beire're bai ezta baiño Goñi're esperientzia haundiko jendea, oso gustora, esperientzia ona atea duen, eraman duen lekua, eta bueno hor jarraitzen du, martxan da...

## 10. Federazioko udalekuak bere aldetik

- **Erref:** DON-149/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Federaziokoak bere bideari jarraitu zioten, Agurain... Baliteke Maritxu Barriolak buru egitea, Josetxo Goia eta abarrekin batera. Maritxu Barriolari ez zitzaion Beire gustatzen.

## 11. Etxe bakoitzak bere ekipoa

- **Erref:** DON-149/013
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:25:18. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Etxe bakoitzak bere ekipoa zuen. Jesus Marik Beire zeraman; Eibarren zegoen apaiz eta inguruko jendea zen gehienbat begirale. Manolo Berazak Abaigar, eta Lazkao-Beasain aldeko jendea zebilen berarekin. Antzinen ere Goierriarrak nagusi. Antzin bukatu zenean pasatu ziren Urdirotzera.

## 12. 1975, Bernedo

- **Erref:** DON-149/014
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

<p>1975ean sortu zen Bernedo. Antzingo taldeak sortu zituen Bernedo eta Urdirutz. Bernedok jarraitzen du.</p>

**Transkripzioa**

-Aurretik Bernedo, Antzindik bertatik-edo bultzatuko zan?  
-Bai baiño, Bernedo're sortu zan bai, Bernedo're sortu zan.  
-75ean?  
-75ean, bai. Bai Bernedo, sortu zan ta izan giñan han.  
-Antziñetik esan zeben, ezta?  
-Nik uste Antziñetik...  
-Antzingo taldiak bultzatu zebala...  
-Bai nik uste Antzingo taldeak sortu zula Bernedo, ta Urdirutz ere bai.  
-Biak? Bai, bai bai.  
-Bai, nik uste baietz.  
-Bai lehengo eunian eon giñan zea batekin, sukaldari batekin... Fermiñek, berak esan joskun, Antziñen zertu baiña lehenengo jun ziela ta...  
-Bernedon egon ziela, bai, bai bai.  
-Ta Bernedok jarraitzen du.  
-Bai, Bernedok jarraitzen du, ez dakit gaiñera lau txanda ez dittuzten eiten.  
-Lau txanda, eh?  
-Bai, batenbat motza ero...  
-Bai, oain normalean motxak iten dia, bai.

**13. Oraingo txandak, laburragoak**

- **Erref:** DON-149/015
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

**Laburpena:**

Lehengo txandak 20 egunekoak izaten ziren, eta orain, ostera, luzeenak 15ekoak eta haur txikienekin astebete. Guztiz aldatuta dago familiek oporrak pasatzeko modua. Orain abuztuan lehenengo astean egiten dira bakarrik udalekuak.

**14. Gerora famatu bihurtuko zirenak udalekuetan**

- **Erref:** DON-149/018
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:34:46. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Olano Gipuzkoako diputatu ohiak jakinarazi zion bera ere Beiren egona zela,

eta gogoan zituela Jesus Mariren ipuinak. Jose Ramon Soroiz, Elixabete eta Mari Karmen Garmendia. Joxean Muñoz.... Beiren egondakoak.

## 15. 1969, Euskal Udalekuen sorrera urtea

- **Erref:** DON-149/019
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:37:02. **Bukatu:** 00:39:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Estepanen azalpenak. 1969an sortu ziren Euskal Udalekuak. 76 eta 77 Ozaeta. 78a hutsik pasatu omen zen. Jonek, anaiak hartu zuen idazkari lana hasieratik.

## 16. "Jon Harrietaren udalekuak"

- **Erref:** DON-149/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:39:12. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Juan Martinen komentarioak bere ikaskide Jon Harrietari buruz. Gutxienez hamar urtez eraman zuen Jonek bulegoa. Lau etxeak batera ere eraman izan zituen.

## 17. Adinaren arabera etxe batera edo bestera

- **Erref:** DON-149/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:44:20. **Bukatu:** 00:46:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Adinaren arabera, etxe batera edo bestera zuzentzen dira ikasleak. Abaigarrera zaharrenak, seigarren mailatik gorakoak. Hamasei urte, gehienezko adina.

## 18. Dokumentazioa biltzeko unea egokia

- **Erref:** DON-149/024
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:49:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Super8-an grabaturiko bideoak digitalizatzen ari dira. Estepanek dio aukera

hau aprobe txatu behar dugula ahal den guztia ongi biltzeko. Ihazintok ere material asko izango du. Gauzak galdu egingo dira ondo gorde ezean.

## 19. Saturraranen historia

- **Erref:** DON-149/026
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:54:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Herria, azpiegitura

### Laburpena:

Saturraranen historia. Bainuetxea lehendabizi. 1921an Gasteizko elizbarrutiak eskuratu zuen lkatza familiarengandik, udan apaizgaiak oporretara joateko. Gerra denboran eta ostean (1937-1942) emakumeen kartzela. 1944an berreskuratu zuen elizbarrutiak eta udaleku gisa erabili zen berriz. 1950ean, Gasteizko elizbarrutia zatitu zenean, Gipuzkoako seminario txiki bihurtu zen. Sei mailatako ikasleak ere egon ziren momentu batean. 1953ean itxi egin zuten, Donostiakoa ireki zenean, denentzat nahikoa izango zelakoan. Baina 56an berriz ireki behar izan zuten lehen bi kurtsoak hartzeko. Eraikinak bainuetxe eta kartzela zaharrarenak ziren kanpotik.

## 20. Jesus Mari, ipuin kontalari eta idazle

- **Erref:** DON-149/029
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 01:02:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

### Laburpena:

Jesus Mari ipuin kontalari gisa ere gogoratzen dute udalekuetan. Zegamako baserrian entzun zituen lehen ipuinak aitonaren ahotik, Tartalorenak eta. Saturraranen, bera apaizgai gaztea zela, argia joaten zenean ipuinak kontatzen zizkieten zenbait apaizek. Luis Urbietak, esaterako, "Amaia y lo vascos..." kontatzen zien. Argia etortzen zenean amaitzen zen egun hartakoa. Hurrengoan oso gogoan izaten zuten non bukatu zuen. Beiren hasi zen metodo horrekin ipuinak kontatzen. Goñin megafonia jarri zutenean, oheratuta gero kontatzen zituen. Efektu bereziak ere erabiltzen ziren. Grabatu ere egin zituen. Ondo legoke digitalizatzea material hori. Gero hainbat liburu argitaratu zuen, "Harkaitz, elurretako haurra", Teodosio Goñirenak, "Landetaratuak" eta abar.

## 21. Ipuina da pedagogia tresnarik onena

- **Erref:** DON-149/030
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:02:38. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Ipuina da pedagogia tresnarik onena, bere ustez. Katekesian ere gauza bera egiten du. Ikustea baino hobea du entzutea, ipuinak barrengo irudimena lantzen duelako, ikus-entzutekoek egiten ez dutena.

---

**Arrieta Sagasti, Jesus Mari** | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com